

2023-2024KO PATOJAS PROIEKTUKO BOLETINA



**PATOJAS
PROIEKTUA**



2023-KO LABURPENA

DIBERTSIFIKATUKO IKASKETAK AMAITUTA

2023an 17 ikaslek amaitu zuten Dibertsifikatuko ikasketak. **Guztiak, % 100, EMAKUMEAK izan dira.**

17
DIBERTSIFIKATUKO
IKASLEAK

100%
EMAKUMEAK.
GUZTIRA 17.

Pandemiaren ondorengo lehen urtea izan da ikasturte osoa presentziala izan dela ikastetxeetan. Patojetako askok eta haien amek urte zaila izan dela esan digute. Ez ikastetxeak, ez irakasleak, ez ikasleak ez zeuden prest errealitatera itzultzeko. Horren adibide izan da, bi hile bakoitzeko kalifikazioak berandu ematea eta atzerapen handiarekin bidaltzerako orduan.

Itzulera honetan, argi eta garbi geratu da, halaber, herrialdeak hezkuntza-mailan bizi izan duen atzerakada, garrantzitsua izan baita. Uztailean egin genuen bidaian, irakasleekin hitz eginda, argi zuten, pandemia aurreko maila berreskuratzeko urtea izan dela, oinarrizko gaietan, eta nekez lortu da. *"Urte batzuk igaroko dira pandemia aurreko maila berreskuratu arte"*.

Halaber, neskek eta gazteek adierazi dute azterketa-dinamiken aldaketak oso handiak izan direla pandemian zehar. Askotan, lanak alde batera uzten zituzten, egiten ez zekitelako eta irakasleen laguntzarik ez zutelako. *"Orain, askoz denbora gehiago eskaini behar zaie ikasketei, gaiak indartzeko eta gaai berriekin aurrera egiten jarraitzeko"*.

Eskolarako itzulera oso gogorra izan da familientzat ere, haien seme-alaben laguntza etxeetan izatea garrantzitsua izan baita haietako askoren biziraupen ekonomikorako. Guatemala murgilduta dagoen krisiak, patojen familiei bete-betean eragiten die, eta horrek eskolara joateko interesa galtzera edo familiaren ekonomian laguntzeko beharra ekarri die askori.





2024 IKASTURTE

Aurten 137 ikaslek hasiko dute ikasturtea. Guztira, **109 beka** neskontzat dira, hau da, **%79,56**.

%79,56

BEKA Neska eta emakumeentzat.
GUZTIRA 109.

137

IKASLE

2023ko ikasturtea amaitu ondoren, **14 beka** ez dute ikasketekin jarraitzen (13 neska eta mutil bat).

Ikasturte honen hasieran, **121 beka** mantendu dira eta **16 berri** gehitu ditugu.

	TALDEAK	LEHEN HEZKUNTZA		OINARRIZKO HEZKUNTZA		DIBERTSIFIKATUA		GUZTIRA
		NESKAK	MUTILAK	NESKAK	MUTILAK	NESKAK	MUTILAK	
HUEHUETENANGO	IXTAHUACÁN	4	4	6	2	4	3	23
	AJOMAYA	3		12	1	7	1	24
SOLOLÁ	CEIBA			5		3		8
	S. L. TOLIMÁN			6		4		10
	CASA DE LA MUJER			1		12		13
	OXLAJUJ E			3		7		10
SACATEPEQUEZ	S. D. XENACÓJ	10	3	4	2	5	4	26
	SUMPANGO	2	3	4	2	5	4	20
CIUDAD DE GUATEMALA	GUATEMALA	2			1			3
	GUZTIRA	21	10	41	8	47	10	137

¿CÓMO ES VIAJAR A GUATEMALA POR PRIMERA VEZ?

Uztailean, Sololara abiatu ginen gure lankide aliatuekin batera, beren egunerokoan lankidetzaproiektuekin egiten duten lana zein den ikusi eta espazio ezberdinetan parte hartzeko eta Guatemalan zehar banatuta ditugun "patoja" eta "patojo" taldeen jarraipena egiteko.

Aurrez aurreko talka izan zen, aurretik bizi izan ez nuen errealitate baten aurka, testuingurua distantziatik ezagutzen nuen, ohituta nengoen bizipenak entzutera, baina bertara heldu eta errealitatea oso ezberdina da. Distantzia horri esker, herrialdeak bizi duen errealitatetik deskonektatu gaitezke, egungo egoeratik eta gertatzen ari denetik. Baina argi laga nahi dut, egunerakotasun horretan gertatzen ari den guztia, bete-betean eragiten dietela hezkuntza-prozesuei.

Zentzu horretan, zuek guztiok bezala, "Patojas Proiektuan" zuzenean laguntzen duen pertsona naizen aldetik, herrialdea lehen aldiz bisitatzen duzunean sentitzen denaz harritu besterik ezin izan naiz egon. Hango klima, janaria, koloreak, bertako jendea... dena esperientzia bat izan da, zorionez sekula ahaztuko ez dudana. Haur txiki baten ilusioarekin bidaiatu nuen, bidaia handi batez gozatzeko eta argazkietan jarraitu eta ikusi ohi ditugun *patoja* eta *patojo* horiek guztiak gertutik ezagutzeko ilusioarekin, baina oraingoan sentitu ahal izateko, haiekin hitz egiteko eta aurrez aurre ezagutzeko.

Proiektuko parte izanda, bidai honetan orain arte bekaduna zen eta erizaintzako laguntzaile ikasketak amaitzen zituen gaztea pertsonalki ezagutzeko ilusioarekin ere abiatu nintzen. Logistika arrazoiengatik, eta unibertsitatean zegoelako, ezin izan ginen ezagutu, baina bere amarekin hitz egiteko aukera izan nuen, eta hark bere esker ona eta alabarena partekatu zizkidan, behin eta berriz azpimarratuz, gure proiektuan parte hartzea ezinbestekoa dela berain seme-alabek ikasteko aukera izan dezaten.

Guatemalan zehar banatuta dauden talde guztiak bisitatzeko esperientzia sentimendu nahasketa bat izan zen. Kudeatzeko zailak ziren une batzuetan, eta maila pertsonalean eta profesionalean ere oso aberasgarriak izan ziren. Bekadun guztiekin topaketak izan genituen komunitate ezberdinetan, eta pertsonalki ezagutu ginen, entzun eta hitz egiteko tarteak izan nituen, zer zailtasun dituzten, zer ikasi duten, zer kostatzen zaien gehiago eta noraino iritsi nahi duten jakin ahal izan nuen, azken batean, ikasketen ondoren beren helburu pertsonalak eta profesionalak ezagutu nituen.

Hainbat otordu partekatu genituen, ikasleen ama-amonek egindakoak, bazkari tradizionalak, bertako produktuekin... Ezin duzue imajinatu zein ondo zaindu gintuzten! Eta nabarmendu nahi dut beren kulturaren partaide ere egin gintuztela, beren kantuak, musika eta dantza tradizionalak partekatzeko denboraz. Benetan jarraitzeko eredu dira!

Julen Rodriguez Barrenetxea. (Patojas Proiektuko kolaboratzailea eta EA-LAko Komunikazio Arduraduna)



ENTREAMIGOS-LAGUN ARTEAN 2023. URTEAN

"EZEGONKORTASUN POLITIKOAREN URTE HONETAN, JATORRIZKO HERRIAK DEMOKRAZIA DEFENDATZEKO ALTXATU DIRA"

2023a oso urte zaila izan da Guatemalarentzat. Denok dakizuenez, batzuetan EA-LAtik informazioa ematen joan gara, herrialdea administrazioan nagusi diren botere ustelen esku dago. Aldaketa politikoen urtea ere izan da, gobernu aldaketa, hauteskundeak... **Errepresio eta ezegonkortasun politiko handiko hauteskunde-urtea izan zen**, eta hauteskundeen bigarren itzuliaren ondoren, abuztuan, jatorrizko herriak altxatzera eraman zituen, 108 egun iraun duen langabezia nazionalaren bidez demokrazia defendatzera.

PELIGRO DEMOCRACIA GUATEMALA

Herrialdeak bere ekonomian, politikan, osasunean, hezkuntzan... islatzen diren krisi anitzen konbergentzia jasaten du gaur egun, kolonizazioaren eta Errepublikaren sorreraren ondare historikoan errotzen direnak. Urte berri honetan, badirudi beste leiho bat irekitzen hasi dela udaberri demokratiko berri baten "promesa" gauzatzeko itxaropenerekin, Bernardo Arevaloren Gobernu berriarekin batera; izan ere, erronka hori betetzetik urrun dago, betiko tiraniaren herrialdea baita.

Patoja eta patojo taldeak bisitatu ondoren, uste dugu, herrialdeak duen ezegonkortasun guztia bereziki hezkuntzaren esparruan islatzen dela. Izan ere, gu guztiok era batera edo bestera parte hartzen dugu, *Patojas Proiektuarekin* elkarlanean. Horregatik uste dugu **ezinbestekoa dela haur, gazte eta emakumeentzako hezkuntza publiko eta kalitatezkoa izateko eskubidea eta bermea bultzatzen jarraitzea**; izan ere, Guatemalan hezkuntza-estaldurarik ez izateak eta ikasketak amaitutakoan herrialdeak eskaintzen dituen aukera profesional urriek gazteek beste aukera batzuen bila migratzea erabakitzen dute.



AHALDUNTZE PROZESUAK BULTZATZEN DITUGU

Testuinguru korapilatsu horretan, Entreamigos-Lagun Artean elkarteak **hainbat prozesu bultzatu ditu Guatemalan eta Euskal Herrian, emakumeen eta erakundeen ahalduntze politiko eta ekonomikorako**, gazteen artean, eta zehazkiago, Euskal Herrian, hezkuntza ez-formaleko espazioak sustatzea, sentsibilizazio eta komunikazio-ekintzekin.

Aurten ere, Guatemalan, Solola departamentuko tokiko elkarteekin batera, emakumeen ahalduntze politikoa, soziala, kulturala, komunitarioa eta ekonomikoa sustatzeko eta indartzeko prozesuak babesten ditugu. Egokia iruditu zaigu gure nazioarteko lankidetzaproiektuen esparruan garatzen ari diren bi ekimen partekatzea: **Prestakuntza Politikorako Eskola eta Brodatuen Ehunen eta Tailerren Eskola**. Bi eskolak ezagutzak eta esperientziak trukatzeko gune bihurtu dira emakumeen artean.

METODOLOGIA BERRITZAILEEN BIDEZ, EMAKUMEEK GIZA ESKUBIDEEI BURUZ IKASTEN DUTE EHUN-ESKOLETAN ETA BRODATZE-TAILERRETAN.

Prestakuntza Politikorako Eskolan, Ceiba eta Oxlañuj E erakundeen gidaritzapean, aurten emakumeen eskubideak sustatzearen aldeko hainbat ekintza gidatu dira, hauteskunde urterako funtsezkoak izan direnak udal, departamentu eta nazio mailan. Bestalde, emakumeen herritarren parte-hartzea ere ikuspegi garrantzitsua da *Manctzolojyák, Emakumearen Etxearekin* batera zuzendutako eta koordinatutako **Ehun eta Brodatu Tailerren Eskolan**. Espazio horiek metodologia berritzailea garatzen ari dira ikasteko modu berriei dagokienez; izan ere, emakumeek ehungintzako eta brodatuko jarduerekin ikasten dute giza eskubideei buruz, eta, horrela, trebetasun horien balioa handitzea sustatzen dute eta emakumeen eta haien komunitateen autonomia ekonomikoa indartzen laguntzen dute.



Egindako ekintzen artean honako hauek daude:

- Hauteskunde-urtean **Herritarren Agendak sortzea**, batzordeetan eta komunitateetan emakumeen behar estrategikoak islatzen dituztenak. Agenda horiek, gero, emakumeek gidatutako udal-foroetan aurkeztu ziren.
- **Emakumeen Garapen Ekonomikoari buruzko Lege berriaren (LEYDEM) aldeko eragin-ekintzak** eta bertako haziak pribatizatzeko ekimenak (Monsanto 6283 Legea, esaterako) gaitzesteko salaketa-ekintzak.
- Sololako Emakumeen Topalekuarekin batera, **indarkeria pairatu duten edo pairatzen duten emakumeei laguntza psikologikoa, legala eta medikua eman zaie**.
- **Antzinako jakintzak berreskuratzea eta errebalorizatzea**, ehunaren, sendabelarren eta hazi-bankuen eta sendaketa-prozesuen bidez.

- **Tokiko ekonomia sustatzea**, emakumeei zuzendutako ekintzailatza ekonomikoko prestakuntza eta espazioak bultzatuz, eta, horrela, Erkidegoko ekonomia indartzen laguntzea.



Ekintza horiekin, tokiko aliatuek lanean jarraitzen dute, nekaezin, emakumeen ahalduntzea sustatzeko eta Guatemalako hainbat lurraldetan komunitateen garapen iraunkorra bultzatzeko.

Eta Euskal Herrian egiten ditugun ekintzetan zentratzen bagara, antolatu ditugun ekintza ezberdinak zuekin partekatu nahi ditugu.

Iaz, **"Pertsonaletik politikara: Erreflexio LGTBIQ+ Guatemala-Euskal Herria"** hirugareren jardunaldiak antolatu genituen. Guatemalako eta Euskal Herriko hainbat pertsona eta erakunderen arteko esperientzien trukearen bidez hausnartzeko eta ikasteko gunea izan zen. **Gure agendetan sexu- eta genero-aniztasunari buruzko ekarpenak egiteko topagune bat sortzen dugu.**

Jornadas LGTBIQ+ Guatemala-Euskal Herria

Jardunaldien formatuarekin jarraituz, oraingoan online formatuan, 2023an **"JabetuArte II. Jardunaldiak"** antolatu ditugu, Artea eta Emakumeak gai nagusitzat hartuta. Guatemalako zein Euskal Herriko emakume artisten estrategia artistiko emantzipatzaileak bilduz, gogoetarako espazioak sortu ditugu, artea izanik hitzaldi guztien gidari. Hurrengo estekan, emakume artisten arteko 3 topaketak ikustea gomendatzen dizuegu:

Jornadas EmpoderArte 2023

EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALERAKO ETA KOLEKTIBORAKO ESPAZIOAK SORTZEA LORTZEN DUGU.

Komunikatzeko beste modu interesgarriago batzuk badaudela ere uste dugu. Horregatik, proiektuetan komunikazio espazio berrien aldeko apustua egiten dugu, eta horretarako, badira bi urte **"Platicando con... Mujeres Diversas"** podcast-a sortu genuela. **Guatemalako eta Euskal Herriko hainbat emakumeren borrokak ikusarazi dituzten ahots berriak** izango dituzue programan, entzuteko sartu hurrengo estekan.

PODCAST "Platicando con... Mujeres Diversas"

Cristina Chiquín Rodríguez Euskal Herria bisitatu zuen eta bere azken lana **"La Búsqueda II"** argazki-liburua eta erakusketa aurkeztu zuen. **Guatemalako emakumeek egin dituzten justizia eskaerak biltzen dituen lana da.** Liburuak, kontakizunaren eta argazkien erabilera konbinatuz, gatazka armatuan gertatzen diren sexu-indarkeria kasuen beste ikuspegi bat erakutsi nahi du, ikasteko, informatzeko eta sentsibilizatzeko.

Exposición y Fotolibro "La Búsqueda II"

Berrikuntza gisa, 2023an **"Artean IX- Ikasgune Feminista"** prozesua hasi zen, Ermua eta Eibarko emakume-komunitate feminista antolatuen borrokak sustatzeko topagune bezala. Hile antolatzen diren guneak dira, bi udalerriek partekatzen dituzte, eta parte-hartzaileen bizipenetan oinarritutako gizartegaietara buruz eztabaidatzen dugu. Proposamen dinamikoa eta parte-hartzaileen bidez, dakigunari balioa emateko eta behar duguna sortzeko, **emakumeen ahalduntze pertsonalerako eta kolektiborako gune bat sortzea lortzen dugu.** Lan hori guztia egiteko, Aniaiz Ariznabarreta Ibarluzearen dinamizazioa eta hilero lantzen diren gaietan espezializatutako hainbat erakunde eta gizarte-mugimendutako erreferenteak ditugu.

Guatemalako eta Euskadiko emakumeen artean jakinduria ehuntzeko beste modu batzuk lantzen jarraitzeko asmoz, iaz argitaratu genuen **"Lurretik Zaindu. Sanando desde la Tierra"** errezetarioa, zuekin partekatu nahi dugu. Gure lurralde eta mendi bakoitzean lantzen eta aurkitzen diren landare naturalekin egindako errezetak ezagutarazteko eta errebalorizatzeko asmoz, **errezeta-liburu hau sortu genuen gure gorputzak, lurra eta lurraldea zaintzeko alternatiba jasangarriekin.**

"Lurretik Zaindu. Sanando desde la Tierra" Errezetarioa

Ikusten duzuen bezala, **Entreamigos-Lagun Artean** elkartetik bultzatzen ditugun prozesuen laburpena da hau, eta zuek ere parte hartzea gustatuko litzaiguke. Horregatik, oraingo honetan, erakundearen lana hurbilagotik ezagutu ahal izatea garrantzitsua zela pentsatu dugu. Edozein unetan 2024rako programatuta ditugun jardueretan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

